

Abestiak / Chansons



Aberriaren profetak

Titizak : Michel Tabèguerie

Doinua : Eneko Tabèguerie

A ber-ri a-ri-on as ka-ta su-na pro-to la-
min-ta do-na tan za-ri gu-z-er

er-ro-re di-i o-da du ka-to hitz ba-to tan za-ri gu-zi-er er-ro-re di

o-ca du ka-to hitz ba-to tan Ni o-ro nahi du: as ka-ta su-na zai-to ko-tan gi-za-ro ra

ni o-ro nahi du: as ka-ta su-ra zai-to ko-tan gi-za-ro na

2. Kaiolan dagon xori tikiak askatasuna zertako
Libratu eta erortzen bada arranoaren meneko (berriz)
3. Euskal Herrian ere badugu mendietako arrano
Euskal anaiak daduzkatenak beren menean esklabo (berriz)

ABERRIAREN PROFETAK

Aberiaren askatasunaz profetak mintzo denetan
Zauri guzien erremedio dadukate hitz batetan (berriz)

Nik ere nai dut askatasuna
Izaitekotan gizonarena (berriz)

Kaiolan dagon xori tikiak askatasuna zertako
Libratu eta erortzen bada arranoaren meneko (berriz)

Nik ere nai dut askatasuna
Izaitekotan gizonarena (berriz)

Euskal herrian ere badugu mendietako arrano
Euskal anaiak daduzkatenak beren menean esklabo (berriz)

Nik ere nai dut askatasuna
Izaitekotan gizonarena (bi aldiz)

LES PROPHETES DE LA PATRIE

La liberté de la patrie, les prophètes en parlent partout.
Les remèdes à tous les maux, ils les ont en un seul mot

Moi aussi je veux la liberté
A condition qu'elle soit celle de l'homme.

Le petit oiseau qui est dans la cage, la liberté, pourquoi?
Si une fois libéré, il retombe sous la coupe du rapace.

Moi aussi je veux la liberté
A condition qu'elle soit celle de l'homme.

Au Pays Basque aussi, nous avons nos rapaces de montagne
Qui maintiennent leurs frères basques, esclaves, sous leur étreinte.

Moi aussi je veux la liberté
A condition qu'elle soit celle de l'homme.

Aitatxiren otoa

Hitzak eta doinua :
Michel Labéguerie



Gu re a la bik da. ka o ta bat xar man ta u. toz a be rats e ta

ma tor-re? nar - ran ta jor ko ne gu. az go ra? zi le du ka po ta

na be re na a. ras k go nar ko tur - ru ta llat. xe da no tor - ra

da na su ta kar - ra oi hu rer in dar ra jaus ten due la nk pa tar - ra

2. Urundik entzun eta otoa ezulka
Zakurrak lotzen dira ihesik saingaka
Leherturik baditu oiloak ehunka
Muxurdinak hamar bat, jandarmak hameka.

3. Gure aitatxi baino kontentago denik
Bere karroaz ez da amerikanorik
Luzaz iduki ditzan bi biak bizirik
Jaungoikoari otoitz egiten diot nik

AITATXIREN OTOA

Gure aitatzik dauka oto bat xarmanta
Urtez aberats eta motorrez marranta
Jazko neguaz geroz zilo du kapota
Hoberena du naski gomazko turruta

Hauze da motorra, dena su ta karra
Oi hunen indarra, jausten duelarik patarra

Urrundik entzun eta otoa eztulka
Zakurrak lotzen dira ihesi saingaka
Leherturik baditu oiloak ehunka
Mutxurdinak hamar bat, jandarnak hameka

Gure aitatxi baino kontentago denik
Bere karroz ez da amerikanorik
Luzaz iduki ditzan bi biak bizirik
Jaun goikoari otoitz egiten diot nik

L'AUTO DE GRAND-PERE

Notre grand-père a une charmante auto
Riche en années, au moteur enrhumé
Depuis l'hiver dernier son capot est troué
Ce qu'elle a de mieux c'est la come en
caoutchouc

Ah quel moteur, tout feu et flamme
Ô quelle vigueur en descendant la pente

En entendant de loin l'auto tousser
Les chiens fuient en aboyant
Elle a écrasé des poules par centaines
Une dizaine de vieilles filles, onze gendarmes

Nul plus content que notre grand-père
Pour son véhicule pas même un Américain
Pour qu'il les garde tous deux en vie
Je prie le Dieu du ciel

Amaren berri

Hitzak : Michel Labèguerie
Doitua : Eneko Labèguerie

A ma ren ber ri gal de g' c ot a ra tse ka ra ze a r a to az pi tik no

re ge la na: ser tan den he go ba se ni goiz ar gi ta al re re la hie ar o tan du er xo ri a

ri a ma ren ber ri gal de g' c ot a ra tse ko hai ze a n (Ur) r la la la

2. Urrietako, gau eder batez
Ama joan zinen bidaiatz
Bidaia hori nik uste baino
Luzeago zen zinez
Zeruko treina hartu zinuela
Parisekoaren ordezt
Agurrik gabe utzi dituzu
Zure umeak nigarrez.

3. Munduko lelo ederrenetik
Ez bada soru bakea
Gaueko negar ilunetatik
Nola ordaindu bestea
Hala joan dira urte luzeak
Nun ote zinen galdezka.
Erantzunikan, nik ukan gabe
Besteak utzi otoizka.

AMAREN BERRI

Amaren berri galdegin diot
Aratseko haizeari
Ate azpitik nere gelarat
Sartzen den hego basari
Goiz argitarat nere leihoan
Joiten duen xoriari.
Amaren berri galdegin diot
Aratseko haizeari

Urietako, gau eder batez
Ama joan zinen bidaiaz.
Bidaia hori nik uste baino
Luzeago zen zinez
Zeruko treina hartu zinuela
Parisekoaren ordeztu
Agurik gabe utzi dituzu
Zure umeak nigarrez.

Amaren berri galdegin diot
Aratseko haizeari
Ate...

Munduko lelo ederrenetik
Ez bada soru bakea
Gaueko negar ilunetatik
Nola ordaindu bestea
Hala joan dira urte luzeak
Nun ote zinen galdezka.
Erantzunikan, nik ukan gabe
Besteak utzi otoizka.

Amaren berri galdegin diot
Aratseko haizeari
Ate...

LES NOUVELLES DE MA MÈRE

J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir
Au vent de Sud, sauvage, qui par dessous la
porte entre dans ma chambre,
Au petit oiseau qui au levé du jour frappe à ma
fenêtre,
J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir.

Une belle nuit d'octobre, maman, tu étais
parti en voyage.
Ce voyage fut plus long que je ne l'imaginais.
Il paraît que tu aurais pris le train du ciel au
lieu de celui de Paris.
Sans un au revoir, tu as laissé tes enfants en
pleurs

J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir
Au vent de Sud, sauvage, qui par dessous la
porte entre dans ma chambre,
Au petit oiseau qui au levé du jour frappe à ma
fenêtre,
J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir.

Si des plus beaux refrains du monde n'est
pas née la paix,
Comment les pleurs de la nuit remplaçaient-ils, l'autre?
Ainsi passèrent les longues années à
demander où tu pouvais bien être,
N'ayant obtenu aucune réponse, je laissais
les autres à leurs prières.

J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir
Au vent de Sud, sauvage, qui par dessous la
porte entre dans ma chambre,
Au petit oiseau qui au levé du jour frappe à ma
fenêtre,
J'ai demandé des nouvelles de ma mère au
vent du soir.

Amen
(Maketo)

Hitzak eta doinua :
Michel Labèguerie



Ez bai di ra ma ke to gu re par-ro ku ak A men a men ez ba
har o ro Eus kal eu rak bai ti ra do a ri nes o ro

- 2. Erdaraz dira ifiork ezin manatuak
Amen...
- 3. Ez ditu manatzen ahal ez ta obizpuak
Amen...
- 4. Euskaraz manatzen tu, berak Jaungoikuak
Amen...
- 5. Segi beti horrela parroko santuak
Amen...

AMEN

Ez baitira maketo gure parrokuak

Amen, amen, ez behar ere
Euskaldunak baitirade
Arimak ere

Erdaraz dira inork ezin manatuak

Amen...

Ez ditu manatzen ahal ez 'ta obizpoak

Amen...

Euskaraz manatzen tu, berak Jaun goikoak

Amen...

Segi beti horrela parroko santuak

Amen, amen, ez behar ere
Euskaldunak baitirade
Arimak ere

AMEN

Ils ne sont pas métèques nos curés

Amen, amen, il faut espérer que non
Car tous sont basques
Y compris les âmes

On ne peut les commander en langue étrangère

Amen...

Ni même l'évêque ne peut les commander

Amen...

Dieu lui-même les commande en euskara

Amen...

Continuez ainsi saints prêtres

Amen, amen, il faut espérer que non
Car tous sont basques
Y compris les âmes

Astoa Balaan

Hitzak eta doinua :
Michel Labéguerie

(fine)

Gu re as to a Ba la an zan ze rau ku e li zar As to kos kor ba ze
la de ba zi a ne lan sar tu zen e li za ko ko ra be ne he ba e ta i
ha ko lu be re c toi ze an al da re ko tu xe tak au si kiz er te lan

2. Utzirik lo kuluxka ta kofesionala
Jaun ertorak hartu du kurutze makila
Eta hartaz zanpatuz debruatarat zoala
Elizatik haizatu oi gure kabala !
3. Zergatik ez den haizu elizan astorik
Pentsaketan ari da Balaan geroztik
Orroit baita asto bat beretier izanik
Lehen eguberria gertatu zelarik.

ASTOA BALAAAN

Gure astoa Balaan, izan zerauku elizan

Asto koxkor bat zela debozionetan
Sartu zen elizako koro bame hetan
Eta ihanka lotu bere otoitzetan
Aldareko buketak ausikiz artetan

Gure astoa Balaan, izan zerauku elizan

Utzirik lo kuluxka ta kofesionala
Jaun ertorak hartu du kurutze makila
Eta hartaz zanpatuz debrietarat zoala
Elizatik haizatu oi gure kabala!

Gure astoa Balaan, izan zerauku elizan

Zergatik ez den haizu elizan astorik
Pentsaketan ari da Balaan geroztik
Oroit baita asto bat beretter izanik
Lehen eguberria gertatu zelanik

Gure astoa Balaan, izan zerauku elizan

L'ANE BALAAAN

Balaan notre grison jusqu'à l'église fit un bond

Un petit âne se voulant en dévotion
Entra à l'intérieur même du chœur de l'église
Et se prit à braire en ses prières
En broutant de temps en temps les fleurs de l'autel

Balaan notre grison jusqu'à l'église fit un bond

Ayant laissé sa sieste et le confessionnal
Monsieur le Curé a pris la hampe de la croix
Et le frappant en l'envoyant au diable
A chassé de l'église notre animal

Balaan notre grison jusqu'à l'église fit un bond

Pourquoi les ânes sont interdits d'église
Fait dès lors l'objet des pensées de Balaan
Car il se souvient qu'un âne fut enfant de chœur
Lorsque advint le premier Noël

Balaan notre grison jusqu'à l'église fit un bond

Bakearen urtxoa

Hitzak : Pierre Larzabal/ M. Labéguerie

Doitua : Michel Labéguerie

Ba ke a ren ur txo a oi ur txo er li a ha ga er kur ri za zu lur za ba gu ti a kor do
la ge la de ur da go ken jer c a hi ler neur ai tot a nak e ta e maz ti a ko pa tu a er
es lan da b lan t x : a ore so ner do "e ka be " « de » b zi a er ro zu te de ne ri
Jen de ga xo ek ez de ha gau del tza r bai na ba i zar re ri ta ke a ce la zu e ri

2. Bakearen urtxoa, jarraik bideari,
Zure lili ezta eskainiz orori.
Mintza zaite ezinik dagon erlari ;
Bihotza bero zozu xahar hoztuari ;
Esperantza emozu kezkan den amari,
Bere latza ken-ozu hilen ezkilari.
Errozute deneri : Jende gaixoak...

3. Bakearen urtxoa, hemen zaite geldi !
Lur hau da sakratua, deitzen da Euskadi !
Zorte txar batez joak girade aspaldi,
Denak anaiak-eta, bizi bi alderdi.
Gerla da berrikitan pasa hemen gaindi ;
Euskaldunen urtxoa, otoi, mintza bedi !
Errozute deneri : Oi Euskaldunak...

BAKEAREN URTXOA

Bakearen urtxoa, oi urtxo ezia
 Hegalez kurri zazu lur zabal guztia
 Kotsola gerla pean dagoken jendia
 Hilen haur, ait' et' amak, eta emaztia,
 Kolpatua errestan dabilan trixtia,
 Presoner dohakabe, hilik den bizia;
 Eroizute deneri:

Jende gaixoak,
 Ez beha gau beltzari,
 Bainan bai izarreri!
 Bakea dela zueri!

Bakearen urtxoa, jarraik bideari,
 Zure lili ezia eskainiz orori.
 Mintza zaite ezinik dagon eriar;
 Bihotza bero zozu xahar hoztuari;
 Esperantza emozu kezkan den amari,
 Bere latza ken-ozu hilen ezkilari.
 Eroizute deneri:

Bakearen urtxoa, hemen zaite geldi!
 Lur hau da sakratua, deitzen da Euz-
 kadi!

Zorte txar batez joak girade aspaldi,
 Denak anaiak-eta, bizi bi alderdi.
 Gerla da bemikitan pasa hemen gain-
 di;
 Eskualduner urtxoa, otoi, mintza
 bedi!

Eroizute deneri: Oi Eskualdunak,

LA COLOMBE DE LA PAIX

Colombe de la paix, ô douce colombe
 Parcours à tire d'ailes la vaste terre
 entière
 Console les gens écrasés par la gue-
 rre
 Enfants, parents, femmes des morts,
 Le pauvre blessé qui va se traînant,
 Le malheureux prisonnier à demi-
 mort;
 Dis-leur à tous:

Pauvres gens,
 Ne regardez pas la nuit noire,
 Mais bien les étoiles!
 La paix soit avec vous!

Colombe de la paix, poursuis ta rou-
 te,
 Offre à tous ta douce fleur:
 Parle au malade qui n'en peut plus;
 Réchauffe le coeur du vieillard que
 gagne le froid;
 Rends espoir à la mère angoissée,
 Enlève au glas toute son austérité.

Dis-leur à tous:

Colombe de la paix, reste parmi
 nous!
 Cette terre sacrée s'appelle Euskadi!
 Un mauvais sort nous frappe depuis
 longtemps,
 Nous sommes tous frères vivant en
 deux endroits.
 La guerre est récemment passée par
 ici;
 Colombe des Basques parle, je t'en
 prie.

Dis-leur à tous: Ô Basques,
 Ne regardez pas la nuit noire,
 Mais bien les étoiles!
 La paix soit avec vous!

Bost iturri

Hitzak eta doinua :
Michel Labèque

Bost: i tur - ri ba zi reñ neu re reñ di e tan

bost: tur - ri kañ ta ri a a ar - ro ke tan

e da ten mai te tu eñ rei - eñ ur ho ize tan

re ta rik be leñ ka - an ta a gor tu ca be tan

2. Bost goroztiz egina zen neure oihana
Nungo aire gaixtoak bota du geihena ?
Hil da neure zeruko izar eztiarena,
Ta itzalak geroztik bete daut barrena.

3. Hil da uhain arina plaia bazterrean,
Hil da uso gaztea iratze gorian,
Hil da neure umea bide kurutzearan,
Bere primaderako lehen iduzkian.

4. Mundurraingo kaskoa arroak inguru,
Mendirik ederrena dirudi gaztelu
Bost semen erdian nik banuen urgulu
Zeruko Jainko Jauna, bortizki jo nauzu.

BOST ITURRI

Bost ituri baziren neure mendietan,
Bost ituri kantari, alai arroketan
Edaten maite nuen heien ur hotzetan,
Hetarik baten kanta, agortu da betan.

Bost gorostiz egina zen neure oihana
Nungo aire gaixtoak bota du geihena?
Hil da neure zeruko izar eztieta,
Ta itzalak geroztik bete daut barrena.

Hil da uhain arina plaia bazterrean,
Hil da uso gaztea iratze gorrian
Hil da neure umea bide kurutzean
Bere primaderako lehen iduzkian.

Mundarraingo kaskoa arroka inguru,
Mendirik ederrena dirudi gaztelu
Bost semen erdian nik banuen urgulu
Zeruko Jainko Jauna, bortizki jo nauzu.

CINQ SOURCES

Il y avait cinq sources dans nos montagnes,
Cinq sources chantantes, joyeuses dans les rochers
Jamais en boire leur eau fraîche,
La chanson de l'une d'entre elles s'est tarie
d'un seul coup.

De cinq houx était faite ma forêt
D'où est venue la foudre qui a abattu le plus grand?
Elle est morte ma plus douce étoile céleste,
Dès lors l'ombre a envahi mon être.

Elle est morte la vague légère sur le bord de la plage,
Elle est morte la palombe dans la fougeraie rousse
Il est mort mon enfant dans un carrefour
Au premier soleil de son printemps.

Le sommet du Mondarrain est entouré de rochers,
La plus belle montagne ressemble à un château-fort
Au milieu de cinq fils je me sentais plein d'orgueil
Seigneur Dieu du ciel tu m'as frappé durement.

Elur egin du

Hitzak eta doinuak :
Michel Labèguerie

Elur egin du gau huntan kanpoak i xil xerak bira
beñe lu mezu jaun ez tan ur tsu mer di ma da
xur tan e lur e gin du gau huntan

2. Hego haize urrietan
Haitzak geroztik
Ostoz buluzirik
Hotzez zauden ikaretan
Orai gaba xuri estaletan
Elur egin du gau huntan

3. Hurbil gaiten su xokora
Egun goxoen
Mila oroitzapen
Su biziak berotzera
Gure haur ametsen berpiztera
Elur egin du gau huntan

ELUR EGIN DU

Elur egin du gau huntan
Kanpoak ixil, xoriak biribil,
Beren lumazko jauntzitan,
Urtsu mendi mantalin xuritan...

Elur egin du...

Hego haize umietan,
Haitzak geroztik, ostoz biluzirik,
Hotzez zauden ikaretan,
Orai kapa xuri espaldetan...

Elur egin du...

Hurbil gaiten su xokorat
Egun goxoen, mila orroitzapen
Su bizian berotzerat.
Gure haur amentsen berpiztera,

Elur egin du...

IL A NEIGÉ

Il a neigé cette nuit
La nature se tait, les oiseaux se lovent,
Dans leur costume de plumes,
L'Urtsumendi en mantille blanche...

Il a neigé cette nuit...

Vent du Sud en octobre,
Dès lors les chênes perdent leurs feuilles,
Ils tremblaient de froid,
Ils ont maintenant cape blanche sur les épaules...

Il a neigé cette nuit...

Approchons-nous du coin du feu
Pour réchauffer au feu vif
Les jours heureux, les mille souvenirs
Et ressusciter nos rêves d'enfant.

Il a neigé cette nuit...

Ezkilaren kantua

Hitzak eta doinuak :
Michel Labéguerie

Du re e iz dor e ka ez ki la za "e" e

be dauz ka "e" e tu nik be er be ka rak L

lir da an da lan din de ba la ran ci

lin da lan da lan dir dan ba e rar

2. Ene aitabxi zuten noizbait bataiatu,
Ezkil zaharra baitzen alegantziatu.
3. Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,
Bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea.
4. Bainan ezkil zaharra zertako brandaka,
Etsai gaixtoa dator, lot gizon armaka.
5. Arrats hotz latzgarria, ezkil hetsitua
Aitabxi gorputz da-ta, gerla da galdua.
6. Bainan ezkila mintzo, xo ! dezagun adi,
Haur ttipi bat sortu da azkar bizi bedi.
7. Kanta beza ezkilak menderen mendetan,
Kanta beza bizia Euskal Herrietan !

EZKILAREN KANTUA

Gure eliz' dorreko ezkila zaharrak
Badauzka hedaturik berrien bakararak.

Dilin, dalan, dalan,
Din dan boleran

Ene aitatxi zuten noizbait bataiatu,
Ezkil zaharra baitzen alegrantziatu.

Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,
Bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea.

Bainan ezkil zaharra zertako brandaka,
Etsai gaixtoa dator, lot gizon armaka.

Arrats hots latzgarria, ezkil hetsitua
Aitatxi gorputz da-ta, gerla da galdua.

Bainan ezkila mintzo, xo! dezagun adi,
Haur ttipi bat sortu da azkar bizi bedi.

Kanta beza ezkilak menderen mendetan,
Kanta beza bizia Eskual herietan!

LE CHANT DE LA CLOCHE

La vieille cloche de notre campanile
A répandu nombre de nouvelles.

Ding, dang, dong
Ding, dong, à toute volée!

Mon grand-père fut, un jour, baptisé
Et la vieille cloche tinta d'allégresse

Dès sa naissance l'homme se doit d'aimer,
Avec ferveur elle carillonne pour son mariage.

Mais, vieille cloche, pourquoi donc le tocsin?
Le méchant ennemi arrive, homme, prends les armes.

Glas terrible dans le soir, cloche désespérée,
Grand-père est décédé, la guerre perdue.

Mais la cloche parle, chut! écoutons-la,
Un petit enfant est né, qu'il vive, robuste.

Que chante la cloche dans les siècles des siècles,
Qu'elle chante la vie dans tout le Pays Basque.

Gatua pitxitxi

Hitzak eta doinua :
Michel Lahèguerie



2. Eguna deraman lotan
Ase ondo ametsetan,
Iduri du bai egitan
Kalonjer bat bezperetan.
3. Jaun Kalonjerra barkatu
Zuri baitut konparatu.
Pitxitxik ileak baditu
Ez zaio kaskoa pelatu.
4. Lana baitzaio itsusi
Ez du ihizin ikasi,
Sagüño bati ihesi
Nihaurk atzo dut ikusi.
5. Pitxitxi hiltzen delarik
Ez baitu egin gaizkirik,
Zazpi izpirtuetatik
Bat baduke salbaturik.
6. Nola bizi den lur huntan
Hala gatuen zerutan,
Biziko da ametsetan
Sekulorum sekulotan.

GATUA PITXITXI

Ez du uzten supazterra,
Badu lepoko superra,
Da gizen bezain ederra,
Irudi du Kalonjerra.

Gure gatura Pitxitxi da dena ile eta
txitxi

Eguna deraman lotan
Ase ondo amentsetan,
Iduri du bai egitan
Kalonjer bat bezperetan.

Jaun kalonjerra barkatu
Zuri baitut konparatu.
Pitxitxik ileak baditu
Ez zaio kaskoa pelatu.

Lana baitzaio itsusi
Ez du ihizin ikasi,
Saguño bati ihesi
Nihaurk atzo dut ikusi.

Pitxitxi hiltzen delarik
Ez baitu egin gaizkirik,
Zazpi izpirituetatik
Bat baduke salbaturik.

Nola bizi den lur huntan
Hala gatuen zerutan,
Biziko da amentsetan
Sekulorum sekulotan.

PITXITXI LE CHAT

Il ne quitte pas le coin du feu,
Il a un magnifique collier,
Il est aussi gras que beau,
Il ressemble à un chanoine.

Pitxitxi notre chat, poil dru et gros
pacha

Il passe la journée à dormir
Repu et rêvant,
Il ressemble à vrai dire
A un chanoine après les vêpres.

Pardonnez Monsieur le chanoine
Si je l'ai comparé à vous.
Pitxitxi a le poil dru
Il n'a pas le crâne pelé.

Comme il déteste le travail
Il n'a pas appris à chasser,
Fuyant devant une souris
Tel je l'ai vu hier.

Quand Pitxitxi mourra
Comme il n'a rien fait de mal,
Des sept esprits
Il en aura un de sauvé.

Comme il a vécu en ce bas-monde
De même au ciel des chats,
Il vivra en rêvant
In secula seculorum.

Gau iluna

Hitzak eta doinua :
Michel Labèguerie

Gau i lu ne xur pe du ca goiz ar gi ur re tze ar gau ai ne rak sa fu di re
a li za ko dor ra an Ez ki lak a tzar di re an ja lu sa o te ar
o ta zu na ro mai to a zau do la a ma tso an A tzar r a tza zai le
na ro la ro mai to a i guz ki a jo k tzer da ca ter ar g bo to a
i guz ki a jei ki tzer da a ca ter ar g bo to an

2. Zoin goxo den senditzea ihintzaren garbia,
Goizaren saindutasuna, argiaren grazia.
Elgar maite dutenentzat, hor da egun berria,
Xorien magnifikatez betea da guzia.

Kantuz ari naiz zuretzat. Kantuz ari xoriak !
Amodiozko goizean ideki bi begiak.

GAU ILUNA

Gau iluna xurpaildu da, goiz argi urratzean
Gau ainarak sartu dire elizako dorrean.
Ezkilak atzari dire anjelusa joitean,
Eta zu neure maitea zaude lo ametsean.

Atzarri, atzarri zaitte, nere lore maitea
Iguzkia jeikitzen da dator argi betea!

Zoin goxo den senditzea ihintzaren garbia,
Goizaren saindutasuna, argiaren grazia.
Elgar maite dutenentzat, hor da egun berria,
Xorien magnifikatez betea da guzia.

Kantuz ari naiz zuretzat. Kantuz ari xoriak!
Amodiozko goizean ideki bi begiak.

NUIT SOMBRE

La nuit sombre a pâli lorsqu'apparaît l'aurore
Les chauves-souris se sont retirées dans le clocher de l'église.
Les cloches se sont réveillées en sonnant l'angélus,
Et toi, ma bien-aimée, tu rêves en dormant.

Eveille-toi, éveille-toi ma fleur bien-aimée
Le soleil se lève, le plein jour arrive!

Comme il est doux de sentir la limpidité de la rosée,
La sainteté du matin, la grâce de la lumière.
Pour ceux qui s'aiment voici le jour nouveau,
Tout plein du "Magnificat" des oiseaux.

Je chante pour toi. Les oiseaux chantent!
En ce matin d'amour, ouvre tes deux yeux.

Gazteri berria

Hitzak : Pierre Larzabal/ Michel Labèguerie
Doinua : Michel Labèguerie

A ta zer egin duzu gu irarri mai ta a a? kar po ko a ri sai cu
o da na ka bo a - a ar - rot zoz bo to a - da Eus ka di gu z a - a
Eus kal du ra et xe - e an ez da ga nau si a - a
Gu irar Eus ka a ka gaz te ri ber ri a - a Eus ka di ba kar - ri da da gu re a ber ri a
gu g ra Eus ka di ko gaz te ri ber ri a Eus ka di ba kar ri da gu re a ber ri a

2. Aita zer egin duzu euskara maitea...

Erderan hazi duzu oi zure semea.
Ontasun ederrena aita batek galtzea,
Bihotzean sartua dugu ahalgea.

3. Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,
Bainan Euskal semea da gure anaia.
Hemen dela España, han dela Frantzia,
Mugaren bi aldetan da Euskal Herria.

4. Jaungoikoak emana hor dugu herria,
Bere semek hiltzera zergatik utzia...
Bat egin behar dugu Euskadi guzia,
Bildu gaiten anaiak gure da bizia !

GAZTERI BERRIA

Aita zer egin duzu gure lur maitea?
 Kanpokoari saldu, oi dohakabea!
 Arrotzez betea da Euzkadi guzia,
 Eskualduna etxean ez dago nausia.

Gu gira Euzkadiko gazteri berria
 Euzkadi bakarra da gure aberria...

Aita zer egin duzu euskara maitea...
 Erderan hazi duzu oi zure semea.
 Ontasun ederrena aita batek galtzea,
 Bihotzean sartua dugu ahalgea.

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,
 Bainan Eskual semea da gure anaia.
 Hemen dela España, han dela Frantzia,
 Mugaren bi aldetan da Eskual-herria.

Jaungoikoak emana hor dugu herria,
 Bere semek hiltzera zer gatik utzia...
 Bat egingo behar dugu Euzkadi guzia,
 Bildu gaiten anaiak gure da bizia!

JEUNESSE NOUVELLE

Père qu'as-tu fait de notre terre chérie?
 Tu l'as vendue à l'étranger, oh! malheureux!
 Notre Euzkadi est rempli d'étrangers,
 Le Basque n'est pas maître en sa maison

Nous sommes la jeunesse nouvelle d'Euzkadi,
 Seule Euzkadi est notre patrie.

Père, qu'as-tu fait de l'euskara chéri...
 Ton fils tu l'as élevé en langue étrangère.
 Qu'un père puisse perdre un si beau trésor,
 Notre coeur est envahi de honte.

Le Gascon ou le métèque ne sont pas nos ennemis,
 Mais l'enfant du Pays Basque est notre frère.
 Ici l'Espagne, là la France,
 Des deux côtés de la frontière est le Pays Basque.

Notre pays nous a été donné par Dieu,
 Pourquoi ses enfants le laissent-ils mourir...
 Nous devons réunir l'ensemble d'Euzkadi,
 Réunissons-nous, frères, la vie nous appartient!

Euskaldun gudari

Hitzak eta doinua :
Michael Lahéguerie

210

Zer euk ni gar oz zer duk har i lu eus kal euk gu ca ri

a... le gu re kin ber ta dut a gun ga te zen li ber t

105

Ez oz oz nai ko a lai i zan ni oz bai ta li bro Eus ka di

ez bai ta li bro Eus ka c

2. Lagunak hilak gorpuz lur pean
Edo desterruan.
Gu berriz hemen bertzen menean,
Preso gure etxean.

Ez ez ez...

3. Gauak goiz alba duela ondoko
Lagun orroitiadi.
Luza gabe diuk bai libratuko
Gure ama Euskadi.

Bai bai bai alai izango naiz ni
Libratu eta Euskadi
Libratu eta Euskadi.

GUDARI ESKUALDUNAREN KANTUA

Zer duk nigarrez, zer duk hain ilun
Eskualdun gudari.
Ator gurekin besta duk egun
Gaitezen liberti.

Ez ez ez naike alai izan ni
Ez baita libro Euzkadi,
Ez baita libro Euzkadi.

Lagunak hilak gorputz lurpean
Edo desterruan.
Gu beriz hemen bertzen menean
Preso gure etxean.

Gauak goiz alba duela ondoko
Lagun orroit hadi.
Luza gabe diuk bai libratuko
Gure ama Euzkadi.

Bai bai bai alai izango naiz ni
Libratu eta Euzkadi

LA CHANSON DU SOLDAT BASQUE

Qu'as-tu à pleurer, pourquoi es-tu si sombre
Guerrier basque.
Viens avec nous c'est jour de fête
Divertissons-nous.

Non, je ne peux être joyeux
Car Euzkadi n'est pas libre,
Car Euzkadi n'est pas libre.


Les compagnons morts et enterrés
Ou en exil.
Nous, par contre, soumis à d'autres
Prisonniers en notre maison.

A la nuit succède l'aube blanche
Souviens-t'en compagnon.
Prochainement nous libérerons
Notre mère Euzkadi.

Oui, oui, oui, je serai joyeux
Après avoir délivré Euzkadi

Haurtxo haurtxoa

Titizak eta doirua :
Michel Labèguerie



hau txo haur txo a zu e g r lo he men nau zu zu zain lza ko

(fine)

i zu a g r o ai tz ur un da sus ka c re zar bi zu

ko zu re on co an a ma dau ka zu a tzai tu i riciz u tz ko

2. Izu egin lo, aita preso da,
Zu bihar libro izaiteko.
Egun batian etorriko da
Gu biokin bizitzeko.

3. Izu egin lo, iluna gatik
Zeruan izarra dago.
Mila ta mila izango dire,
Aita libratu ta gero.

HAURTXO HAURTXOA

Haurtxo haurtxoa, izu egin lo
Hemen nauzu, zu zaintzeko

Izu egin lo, aita urrun da
Euzkadiren zerbitzuko
Zure ondoan ama daukazu
Inoiz ez zaitu utziko

Haurtxo haurtxoa, izu egin lo
Hemen nauzu, zu zaintzeko

Izu egin lo, aita preso da
Zu bihar libre izaiteko
Egun batian etorriko da
Gu biokin bizitzeko

Haurtxo haurtxoa, izu egin lo
Hemen nauzu, zu zaintzeko

Izu egin lo, iluna gatik
Zeruan izarra dago
Mila ta mila izango dire,
Aita libratu ta gero

Haurtxo...

ENFANT, MON ENFANT

Enfant, mon enfant, fais dodo
Je suis ici pour te protéger

Fais dodo, ton papa est loin
Au service d'Euzkadi
Auprès de toi ta mère
Jamais ne t'abandonnera

Enfant, mon enfant, fais dodo
Je suis ici pour te protéger

Fais dodo, ton papa est en prison
Pour que tu sois libre demain
Un jour il reviendra
Pour vivre avec nous deux

Enfant, mon enfant, fais dodo
Je suis ici pour te protéger

Fais dodo, malgré la nuit
Il y a des étoiles dans le ciel
Il y en aura des milliers
Lorsque ton papa sera libre

Ibar zola
(Mendiaren deia)

Hitzak eta doinua :
Michel Labéguerie

I bar zo la i to a tar u ra ru en hai za bi ziz er re kal da lu na

an a gar rin zan gci er g z gau ru lu en er re su man bi to za nau kan gar ra siz bi ro tza

nau kan gar ra siz

Ln tzun cut reu re bai tar me di a re da ia

an tzun du: nau ba bai tar kan ba ri me c a

2. Ibili naiz mendiz mendi zoratuz askatasunez,
Bete ditut beharriak goietako irrintzinez.
Bete ditut bi begiak urruti zabal urdinez.

Entzun dut...

3. Goiko gainetan dut entzun musikarik ederrena,
Goizaren irri alaia, arratsean hasperena,
Ta nitan sortzen senditu herriaren maitasuna !

Entzun dut...

4. Goazen mendigoizaleak ikusterat goiz argitan,
Jaungoikoaren bakea gora ibilki airetan,
Euskal Herria estaliz arranoen hegoaldean.

Entzun, entzun gaztea,
Mendiaren deia,
Entzun entzun gaztea,
Kantari mendia.

IBAR ZOLA

Ibar zola itoetan gura nuen haize biziz,
 Erekalde ilunetan egari nintzan goi argiz,
 Gau mutuen erresuman bihotza naukan garrasiz

Entzun dut neure baitan
 Mendiaren deia,
 Entzun dut neure baitan
 Kantari mendia.

Ilbili naiz mendiz mendi zoratuz askatasunez,
 Bete ditut beharriak goietako irintzinez.
 Bete ditut bi begiak urruti zabal urdinez

Goiko gainetan dut entzun musikarik ederrena,
 Goizaren iri alaia, arratsean hasperena,
 Ta nitan sortzen senditu herriaren maitasuna!

Goazen mendigoizaleak ikusterat goiz argitan,
 Jaungoikoaren bakea gora ibilki airetan,
 Euskal Herria estaliz arranoen hegaletan.

Entzun, entzun gaztea,
 Mendiaren deia,
 Entzun entzun gaztea,
 Kantari mendia

FOND DE VALLÉE

Dans les fonds de vallée envoyés j'avais envie de vent vif,
 Dans les ravins sombres j'avais soif d'aube,
 Dans le royaume des nuits silencieuses mon coeur hurlait.

J'ai entendu en moi
 L'appel de la montagne,
 J'ai entendu en moi
 La montagne chanter.

J'ai marché de monts en monts, m'enivrant de liberté,
 J'ai rempli mes oreilles des irintzinas des hauteurs,
 J'ai rempli mes deux yeux de lointains espaces bleus.

Sur les hauteurs j'ai entendu la plus belle musique,
 Le rire joyeux de l'aurore, le soupir du soir,
 J'ai senti naître en moi l'amour du pays.

Allons, amis des hauts monts, voir à l'aube,
 La paix de Dieu voguant haut dans l'air;
 Couvrant Euskadi sur les ailes des aigles.

Entends, entends, jeune,
 L'appel de la montagne,
 Entends, entends, jeune,
 La montagne chanter.

Loa Loa

Titizak eta doinuak :
Michel Labèguene

Lo a lo a "eu re haur re du la a rik e tza

zan zu "a e" re su man sar tza jk zerk o

le du re bat zan? Ez ca u li bat

bai zi kan ce b le "a i zu li "a" ez ce u bat

bai zi kan de " ze" a ni zo la du ran

2. Loa loa, zure urruneko hirien borten idekitzetik
Zer duk bada gau huntan trabatzen ?
Ez da lupu bat baizikan harikaatik dilindar
Ez da lupu bat baizikan iruten ari bakean.
3. Loa loa, gaur zure erresker gaindi heldu den
Gauazko zaldiaren adibetik, zerk du trabatzen ?
Ez da musker bat baizikan ikur-makurka herrestan
Ez da musker bat baizikan heldu dena baratzean.
4. Loa loa, zure oinarera hegaldatzetik
Nork du trabatzen ?
Xori urdinaren gibeletik ?
5. Gatua da sukaldean lokartunik ametsetan
Gatua da sukaldean, supazter xoko berdean
Sutondoan gatua lo, lo ere derak kanpoan
Gautua lo sutondoan, lo ene ñimiñoa, lo.

LOA LOA

Loa loa, neure haurra dutalarik etzaten
Zure erresuman sartzetik zerk ote du trabatzen?
Ez da uli bat baizikan, dabilana itzulikan
Ez da uli bat baizikan dantzan ari zoladuran

Loa loa, zure urruneko hirien borten idekitzetik
Zer duk bada gau huntan trabatzen?
Ez da lupu bat baizikan harilkaetik dilindan
Ez da lupu bat baizikan iruten ari bakean

Loa loa, gaur zure erreker gaindi heldu den
Gauazko zaldiaren aditzetik, zerk du trabatzen?
Ez da musker bat baizikan ikur-makurka herrestan
Ez da musker bat baizikan heldu dena baratzean

Loa loa zure oihanera hegaldatzetik nork du trabatzen?
Xori urdinaren gibeletik?

Gatua da sukaldean lokartunik ametsetan
Gatua da sukaldean, supazter xoko berotan
Sutondoan gatua lo, lo ere denak kanpoan
Gatua lo sutondoan, lo ene ñimiñoa, lo

DODO!

Dodo, quand je couche mon enfant
Qui est-ce qui l'empêche d'entrer dans ton royaume?
Il n'y a qu'une seule mouche qui va virevoltant
Il n'y a qu'une mouche qui danse sur le plancher.

Dodo, l'ouverture des portes de vos villes lointaines
Qui est-ce qui l'empêche cette nuit?
Il n'y a qu'une araignée pendue à son fil
Il n'y a qu'une araignée qui file en paix

Dodo, cette nuit le galop au-dessus des ravins
Du cheval de la nuit qui est-ce qui empêche de l'entendre?
Il n'y a qu'un lézard se traînant et trébuchant
Il n'y a qu'un lézard qui va par le jardin

Dodo, qui empêche de s'envoler vers votre forêt
A la poursuite de l'oiseau bleu?

Le chat est à la cuisine, endormi dans ses rêves
Le chat est à la cuisine, à la chaleur du coin du feu
Auprès de lâtre le chat dort, tout dort au dehors
Auprès de lâtre le chat dort, dors, mon petit, dors

Maritxu

Titzak eta doinua :
Michel Labéguenie

Ma ri buk i ru u te di tu Ma r buk le hen hor tza ga cu le hen a tse ga be

a gai xo ak go a ha cu ai ta x con so la tze ko le lo hau ra ba lu

La la la a la..

2. Maritxuk hogoi urte ditu
Maritxuk lehen maitia galdu
Oheko buhurdia nigarrez busti du
Aitaren leloak du berriz kontsolatu.
3. Maritxuk berrogoi urte ditu
Maritxuk seme bakarra galdu
Bere ume hoztua besotan hartu du
Ta nigarren erdian lelo hau kantatu.
4. Maritxuk laueroi urte ditu
Aspaldi azken hortza galdu
Bi begietan ere negarikan ez du
Zeruari begira egiten du kantu.

MARITXU

Maritxuk hiru urte ditu
 Maritxuk lehen hortza galdu
 Lehen atsegabea gaixoak gora hain du
 Aitak kontsolatzeko, lelo hau kantatu

Maritxuk hogoi urte ditu
 Maritxuk lehen maitia galdu
 Oheko buhurdia nigarrez busti du
 Aitaren leloak du berriz kontsolatu

Maritxuk berrhogoi urte ditu
 Maritxuk seme bakarra galdu
 Bere ume hoztua besotan hartu du
 Ta nigarren erdian lelo hau kantatu

Maritxuk laurogoi urte ditu
 Aspaldi azken hortza galdu
 Bi begietan ere negarikan ez du
 Zeruari begira egiten du kantu

MARITXU

Maritxu a trois ans
 Maritxu a perdu sa première dent
 Son premier chagrin, la pauvre, elle le ressent très fort
 Son père, pour la consoler, lui a chanté ce refrain

Maritxu a vingt ans
 Maritxu a perdu son premier amoureux
 Elle a mouillé de larmes l'oreiller
 Le refrain de son père l'a consolée à nouveau

Maritxu a quarante ans
 Maritxu a perdu son fils unique
 Elle a pris dans ses bras ce corps refroidi
 Et au milieu des larmes chanté ce refrain

Maritxu a quatre-vingts ans
 Il y a bien longtemps qu'elle a perdu sa dernière dent
 Elle n'a plus de larmes dans ses deux yeux
 Elle chante les yeux rivés au ciel

Nafarra, oi Nafarra

Hitzak eta doinua :
Michel Labèguerie

Na 'ar ra o 'a 'ar ra Lus ka di la he na a der ra zen a ma lsa

zu re ar 'e ge ra Ar ra sa ba: ur ra z ko zaz p 'os ta ko

a er re ge a hur ba ten ne'u ri be 'e ko a e do zain ba ra

ze 'an e z' sor lu ko a zu re an ze' o ra lu ba ta sur go go a

Nafarra, oi Nafarra, Euskadi lehena,
Zer egin da ametsa zure erregena ?

2. Entzuten da kantatzen zure gaztelutan,
Uztai harri zaharren erreberietan,
Santxoren hil hobitik ilun nabarretan
Beti jalgitzen diren hasperen trixtetan.

Nafarra, oi Nafarra, Euskadi lehena,
Ederra zen ametsa zure erregena.

3. Askarrena zu zinen zazpi anaietan,
Zure katetan preso nork zaitu ba eman ?
Xuti zaite ta jalg! errege jauntzitan,
Batasun berriaren arrosa eskutan.

Nafarra, oi Nafarra, Euskadi lehena,
Bizi bedi ametsa zure erregena.

NAFARRA, OI NAFARRA

Nafarra, oi Nafarra, Euzkadi lehena,
Ederra zen ametsa zure erregena.

Arrosa bat urrezko zazpi ostokoa,
Errege ahur baten neurri betekoa,
Edozoin baratzetan ezin sortuzkoa,
Zurean zen loratu batasun gogoa.

Nafarra, oi Nafarra, Euzkadi lehena,
Nun da amets ederra zure erregena?

Entzuten da kantatzen zuen gaztelu-
tan,
Uztai hamri xaharren erreberietan,
Santxoren hil hobitik ilun nabarretan
Beti jalgitzen diren hasperen trixte-
tan.

Nafarra, oi Nafarra, Euzkadi lehena,
Egin zazu ametsa zure erregena.

Azkarrena zu zinen zazpi anaietan,
Zure kadetan preso norik zaitu ba
eman?

Xuti zaita ta jalgi errege jauntzitan,
Batasun bemiaren arrosa eskutan.

Nafarra, oi Nafarra, Euzkadi lehena,
Bizi bedi ametsa zure erregena.

NAVARRE, Ô! NAVARRE

Navarre ô Navarre première Euzkadi
Il était beau le rêve de tes rois

Rose d'or aux sept pétales
A la pleine mesure d'un poing royal
Elle ne pouvait naître dans tous les
jardins
Dans le tien elle a fleuri, la fleur de
l'unité

Navarre ô Navarre première Euzkadi
Qu'est devenu le rêve des tes rois?

On l'entend chanter dans tes châteaux
Dans les songes de leurs vieilles
pierres
Dans les soupirs tristes qui an cré-
puscule
S'exhalent du tombeau du Grand
Sanche

Navarre ô Navarre première Euzkadi
Il était beau le rêve de tes rois

C'était toi le plus fort des sept frères
Qui t'a donc emprisonné dans tes
chaînes?
Lève-toi et paraîs en manteau royal
Tenant dans ta main la rose de la
nouvelle unité

Navarre ô Navarre première Euzkadi
Que vive le rêve de tes rois.

Oi kanta berri

Hitzak eta doinua :
Michel Labègue



C kan ta ber ri i xi lik ra go c ra cu e a as pa di zu re tzat nu an kar ca ro hu ra
zuk z tu de la a c nu di Ges ta a re lar i ra gar di tut rei niz e gur ta gau al
di ta ran o ra ro az du: u ka tu aus ka ra e ta a Eus ka c

2. Oi kanta berri gure herriak behar du bide ta zubi
Etzetan ere baitezpadako argiarekin ur garbi
Horiek denak ez dire aski bizi dadien Euskadi
Hanbat oraino beharko ditut kanta bat eta kanta bi.
3. Oi kanta berri izan zaite zu anaiarteko zubia
Batasunetik libertaterat gidatzen duen bidia
Kartzelan den abertzaleari emozu doi bat argia
Hetsiturikan den bihotzari esperantza ur bizia.
4. Oi kanta berri bihotzetikan espainetarat jalia
Euskal airean bihaltzen zaitut, zu nere mezularia
Jenden artean izatu banaiz beresle samurlaria
Izan zaite zu neure partetik baketzale den xoria.

OI KANTA BERRI

Oi kanta berri ixilik nago orai duela aspaldi
Zuretzat nuen kar bero hura zuk zitudela dirudi
Beste lanetan iragan ditut hainitz egun ta gaualdi
Bainan oraino ez dut ukatu euskara eta Euskadi

Oi kanta berri gure herriak behar du bide ta zubi
Etzetan ere baitezpadako argiarekin ur garbi
Horiek denak ez dire aski bizi dadien Euskadi
Hanbat oraino beharko ditut kanta bat eta kanta bi

Oi kanta berri izan zaite zu anaiarteko zubia
Batasunetik libertatera gidatzen duen bidia
Kartzelan den abertzaleari emozu doi bat argia
Hetsiturikan den bihotzari esperantza ur bizia

Oi kanta berri bihotzetikan ezpainetarat jalia
Euskal airean bihaltzen zaitut, zu nere mezularia
Jenden artean izatu banaiz bereizle samurlaria
Izan zaite zu neure partetik baketzale den xoria

OH! CHANT NOUVEAU

Oh! chant nouveau, je suis avec vous depuis longtemps
Cette flamme chaude que j'avais pour vous n'a pas défailli semble-t-il
En autres travaux j'ai passé force journées et nuits
Mais pas encore renié ni l'euskara ni Euskadi

Oh! chant nouveau notre pays a besoin de routes et de ponts
Dans nos maisons aussi les nécessaires lumière et eau propre
Tout cela est insuffisant pour que vive Euskadi
Il lui faudra encore et un chant et même deux

Oh! chant nouveau, soyez le pont entre les frères
La route qui guide de l'unité à la liberté
Donnez au patriote emprisonné un peu de lumière
Au coeur désespéré l'eau vive d'espérance

Oh! chant nouveau jailli du coeur aux lèvres
Je vous envoie dans les airs vous mon messenger
Si j'ai été parmi les gens semeur de discorde
Soyez de ma part l'oiseau de paix

Parisen eta Madrilen

Hitzak : Michel Labèguerie
Doinua : Eneko Labèguerie



Pa r sen e ta Ma dri len di ra la si ga ber ni o Eus kal dun a ber ba lo a

bi ok has ti o e gi na zu ten ta tu a a ber ba en e ku tra a Eus kal - Her

ri tik kan da rat ur ru da ta ze a Zuzen kan ta ko tra tu a ba lu tzer bi ek fin ka tu

eus kal se ma ha da re nak zaz ko ta ci car tu az du te nar tu pu ña x

ez a ta e re tor ba rik ez zu lan har ma be har rik go se az bes ta rik

3. Aserik dagon munduan hautatu dute gosea

Anaientzat ukaiteko libertadea
Euzkadiko elizetan justizia eskaleak
Anaientzat amodioz daude goseak.

4. Gau luze luzearena orai badator azkena

Eskual anaien artean da maitasuna
Gaztek egiten badute elgarrekin batasuna
Orduan laster datorke askatasuna.

PARISEN ETA MADRILEN

Parisen eta Madrilen direla bi gobernio
 Eskualdun abertzalea biek hastio
 Egina zuten tratua abertzalen lekutzea
 Eskual Heritik kanporat urrun botatzea

Zuzen Kontrako Tratua baitzuten biek finkatu
 Eskual seme hoberenak zaizkote oldartu
 Ez dute hartu puñalik ez eta ere bonbarik
 Ez zuten harma beharik goseaz besterik

Aserik dagon munduan hautatu dute gosea
 Anaientzat ukaiteko libertadea
 Euzkadiko elizetan justizia eskaleak
 Anaientzat amodioz daude goseak

Gau luze luzearena orai badator azkena
 Eskual anaiei artean da maitasuna
 Gaztek egiten badute elgarrekin batasuna
 Orduan laster datorke azkatasuna.

A PARIS ET À MADRID

A Paris et à Madrid deux pouvoirs
 Qui n'aiment guère les patriotes basques
 Ont conclu un marché
 Pour les chasser loin du Pays

Ils avaient conclu cet injuste marché
 Les meilleurs fils des Basques s'y sont opposés
 Ils n'ont pris ni poignards, ni bombes
 Ils n'avaient besoin d'autres armes que celle de la faim.

Dans ce monde repu, ils ont choisi la faim
 Pour obtenir la liberté de leurs frères.
 Dans les églises d'Euzkadi sont les mendiants de la justice
 Mourant de faim par amour pour leurs frères.

Voici l'aube d'une longue nuit
 Sur les frères basques se lève l'amour
 Jeunes, sachez faire votre unité
 Alors, oui, viendra la liberté.

Primaderako liliak

Hitzak eta doinuak :

Michel Labèguerie

Primade- ra ko li ak goi zik zi ren to re tu ak ur le nar

lar ger la tu zen bar ko er - ra mu ba to e ten Gai tuz le er kor la ra

z mai to r a zun hain gu li ez kor te ra zi gai tuz to ez z r tu da la rik mo to

2. Ginuelarik elgarri eman biziko uztari
Ezkilak zauden ixilik nik ez baitakit zergatik

Gaituzte...

3. Ez zuten egin boieran, menturaz ziren Erroman
Ez ziren gure lekuko, ez izanen bataioko

Gaituzte...

4. Nunbeit balinbada zeru, gure haurra da aingeru
Aingeru zeruan bainan, umerik ez ohantzean

Gaituzte...

5. Bihotza hotzez kaskaran nago geroaren menturan
Etor bedi primadera kanpoak ditene berriz lora

Gaituzte...

6. Xoriak amodiotan berriz hastean bertsotan
Leioa dut idekiko, amodioa da sartuko

Gaituzte eskontarazi,
Elgarrekin behar bizi
Eskontarazi gaituzte
Behar dugu elgar maite.

PRIMADERAKO LILIAK

Primaderako liliak, goizik ziren loratuak
Urte hartan gertatu zen, bazko erramu baino lehen.

Gaituzte ezkontarazi, maite ninduzun hain guti
Ezkontarazi gaituzte, ez zintudalarik maite.

Ginuelarik elgari eman biziko uztari
Ez kilak zauden ixilik nik ez baitakit zergatik

Ez zuten egin boleran, menturaz ziren Erroman
Ez ziren gure lekuko, ez izanen bataioko

Nunbeit balinbada zeru, gure haurra da aingeru
Aingeru zeruan bainan, umerik ez ohantzean

Bihotza hotzez kaskaran nago geroaren menturan
Etor bedi primadera kanpoak ditene berriz lora

Xoriak amodiotan berriz hastean bertsotan
Leioa dut idekiko, amodioa da sartuko

Gaituzte ezkontarazi, elgarrekin behar bizi
Ezkontarazi gaituzte behar dugu elgar maite

LES FLEURS DU PRINTEMPS

Les fleurs du printemps bien tôt écloses
Cette année-là fut celle de Pâques avant les Rameaux.

On nous a mariés, vous m'aimiez si peu
On nous a mariés, je ne vous aimais pas.

Lorsque nous nous plaçâmes sous le même joug
Les cloches étaient muettes, je ne sais pourquoi.

Elles ne sonnèrent pas à toute volée, peut-être étaient-elles à Rome
Elles n'étaient pas nos témoins, pas plus pour le baptême.

Si le ciel existe notre enfant est un ange
Un ange au ciel, mais point d'enfant dans le berceau.

Mon cœur tremble de froid devant l'avenir
Vienne le printemps et la nature refleurisse.

Quand les oiseaux enamorés reprendront leurs chants
J'ouvrirai la fenêtre, l'amour entrera.

On nous a mariés, il faut vivre ensemble
On nous a mariés, il faut nous aimer.

Tripan min

Hitzak eta doinua :
Michel Labèguerie

Tri pan min a ta tri pan min kas ko n ba tek da raul a gi - ri

Ir pan min a ta tri pan min kas ko n ba tek da raul a gin

(fine)

F gin on de an mar ka tu bi ak gi nu en a fal

a.. er - re di ra zen hur ail a.. po li ti kar gi nen sar tu

2. Nik oihu Gora Euskadi, harek " sale basque " niri
Nik papotik lotu hari, jandarmak zauzkun ateri
3. Kaskoina dute libratu, ta ni aldiz preso sartu
Presondegian dut kantatu denek dezaten aditu
4. Kaskoinak du irabazi baina ez dut nik ahantzi
Saria bai du merezi, bihar ez bada ere etzi
5. Kaskoina ixildu bedi, gurea baita Euskadi
Izanen da haren aldi, libro delarik Euskadi.

TRIPAN MIN

Tripan min eta tripan min
Kaskoin batek deraut egin (bis)

Egin ondoan merkatu, biek ginuen afaldu
Eretira zen hurbildu, politikan ginen lotu

Nik oihu Gora Euskadi, harek “sale basque” niri
Ni papotik lotu hari, jandarmak zauzkun ateri

Kaskoina dute libratu, ta ni aldiz preso sartu
Presondegian dut kantatu denek dezaten aditu

Kaskoinak du irabazi bainan ez dut nik ahantzi
Saria bai du merezi, bihar ez bada ere etzi

Kaskoina ixildu bedi, gurea baita Euskadi
Izanen da haren aldi, libro delarik Euskadi

MAL AU VENTRE

Mal au ventre et mal au ventre,
Un Gascon me l'a donné. (bis)

Après avoir fait affaire nous soupâmes ensemble,
L'heure de se retirer survenue, nous parlâmes politique.

Je criai Vive Euskadi, lui me traita de “sale basque”,
Je l'empoignai au collet, les gendarmes survinrent.

Ils ont libéré le Gascon, et m'ont mis en prison,
J'ai chanté en prison pour que tout le monde entende.

Le Gascon l'a emporté, moi je n'ai pas oublié,
Il mérite son dû, sinon demain après demain.

Que le Gascon se taise car Euskadi est à nous,
Ce sera son tour quand Euskadi sera libérée.

Xorieri mintzo zen

Hitzak eta doinua :
Michel Labèguerie

The musical score is written on four staves in a single system. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a common time signature (C). The melody is composed of eighth and sixteenth notes, with some rests. The lyrics are written below the notes. The second staff continues the melody and lyrics. The third staff includes a '(fine)' marking above the staff and continues the melody and lyrics. The fourth staff concludes the piece with a double bar line. The lyrics are in Basque and correspond to the numbered list of verses provided below.

Xo r i e ri min tzo zen min tzo zen er - ra ka ri o ha na ko zu hai ba ri ba ze ru ko i za - ra
r min tzo zen hai zo a ri xo ro ba tan ze: zu ka lan xo r i e ri min tzo zen xo ro ba
tan zel zu ka tan (fine)
Ez za ki er ra ku zer gi zo ror li bu ru tan bai nan
on gi ba za rle ze ru ko se ra le tar ze ru ko se ra le tar ta en cen bi ha ze tan

2. Haurrek zuten harikatzen, zahar gaztek trufatzen,
Etxekoek berek ongi laneko baliatzen,
Laneko baliatzen eta gosez pagatzen.
3. Hil da xoroa bakarrik, bakarrik da ehortzi
Ez zen han kristau bat ere salbu lau hilketari,
Salbu lau hilketari ta apeza kantari.
4. Hilobian ezartzean haizea zen gelditu,
Xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu,
Zerua zen goibeldu ta jendea orroitu !

XORIERI MINTZO ZEN

Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekar,
Oihaneko zuhaitzeri ta zeruko izarrer,
Mintzo zen haizeari. Xoro batentzat zaukaten!
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten!

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan,
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan
Zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.

Haurek zuten harikatzen, zahar gaztek trufatzen,
Etsekoek berek ongi laneko baliatzen,
Laneko baliatzen eta gosez pagatzen.

Hil da xora bakarrik, bakarrik da ehortzi,
Ez zen han kristau bat ere salbu lau hilketari,
Salbu lau hilketari, ta apeza kantari.

Hilobian ezartzean haizea zen gelditu,
Xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu,
Zerua zen goibeldu, ta jendea orroitu!

IL PARLAIT AUX OISEAUX

Il parlait aux oiseaux, il parlait au ruisseau,
Aux arbres de la forêt et aux étoiles du ciel,
Il parlait au vent. On le prenait pour un simplet!
Il parlait aux oiseaux, on le prenait pour un benêt!

Il ne savait pas lire dans les livres des hommes,
Mais il lisait fort bien dans les signes du ciel,
Dans les signes du ciel et les cœurs des hommes.

Les enfants lui jetaient des pierres,
les vieux et les jeunes se moquaient de lui,
Ses parents eux-mêmes l'exploitaient au travail,
L'exploitaient au travail et le payaient de famine.

Il est mort le simplet, seul, on l'a enterré seul,
Il n'y avait pas même un chrétien, sauf quatre croque-morts,
Sauf quatre croque-morts et le prêtre qui chantait.

Lorsqu'on le mit sous terre le vent cessa,
Les oiseaux se turent, le ciel obscurci,
Le ciel devint noir, et les gens se souvinrent!

Zertarako beti kanta

Hitzak : Michel Labèguerie

Doitua : Eneko Labèguerie

Zer za-re ka-bet-er-la a-ma-c-o-a-ren pe-na zer la-ra-ko er-ra p-ka-t-hatz-ol

si-tu-en ni-na zer za-re-na Men-di-ko a-re-ger-ri-en h-ta-da u-so-ur-di

ra-mu-da-ko xo-ri-gu-zi ek-oz du-to sar-to ber-di-na mun-du-ko la-re-ger-ri-en hil-sa-da u-so-ur-di

ra-mu-da-ko xo-ri-gu-zi ek-oz du-to sar-to ber-di-na ur-to-re her-u-daz ke-ra

2. Hurtzen ahal da elurra, Artzamendi bizkarrean,
Berritz xurituko baita, datorren negu gorrian.
Urtero elur xuria.

3. Nigar iturri baizikan, ez ahal da maitasuna,
Eta plaia bazterrian, hil behar bada uhaina.
Biziko da maitasuna.

ZERTARAKO BETI KANTA

Hitzak: Mixel Labeguerie
Doinua: Eneko Labeguerie

Zetarako beti kanta, amodioaren pena
Zetarako errepika, bihotz etsituen mina (berriz)

Mendiko lare gorrian, hil bada uso urdina,
Munduko xori guziek, ez dute sorte berdina
Urtero hor udazkena.

Zetarako beti kanta, amodioaren pena
Zetarako errepika, bihotz etsituen mina. (berriz)

Hurtzen ahal da elurra, Artzamendi bizkarrean,
Beritz xurituko baita, datorren negu gorrian.
Urtero elur xuria.

Zetarako beti kanta, amodioaren pena
Zetarako errepika, bihotz etsituen mina. (berriz)

Nigar ituri baizikan, ez ahal da maitasuna,
Eta plaia bazterrian, hil behar bada uhaina.
Biziko da maitasuna.

POURQUOI TOUJOURS CHANTER?

Pourquoi toujours chanter les peines d'amour?
Pourquoi ressasser les maux des coeurs tristes?

Si la palombe bleue est morte dans la rousse lande de montagne,
Tous les oiseaux du monde n'ont pas le même sort...
Chaque année l'automne revient.

Pourquoi toujours chanter les peines d'amour?
Pourquoi ressasser les maux des coeurs tristes?

La neige peut fondre sur le dos d'Artzamendi,
Puisqu'il blanchira à nouveau au plus fort du prochain hiver.
Chaque année la neige blanche revient.

Pourquoi toujours chanter les peines d'amour?
Pourquoi ressasser les maux des coeurs tristes?

L'Amour n'est-il donc que source de pleurs ?
Et si la vague doit mourir sur le bord de la plage